

## 6. gaia

### aditzaren azterketa

- Nahitaezko irakurgaiak: EGLAko 9, 10, 11, 12. kap. (interesgarria 1. kapituluko 8-15 or.).

#### 1. Aditzen sailkapenak 2

##### 1.1. Sailkapen formala 2

- a. aditz jokoan dauden elementuen arabera: 2
- b. morfologiaren arabera: aditz bakunak eta elkartuak 2

##### 1.2. Kasu-marken (gramatika-kasuen) arabera sailkapena 2

###### 1.2.1. Sail ezberdinen azterketa laburra 3

- NOR saileko aditzak 3
- NOR-NORI saileko aditzak 3
- NOR-NORK saileko aditzak 4
- NOR-NORI-NORK aditzak 5

###### 1.2.2. Sail aldaketak 5

- Egitura inbertsonalak 5
- Inkoatibo vs kausatibo alternantziak 5
- Aditz bihurkariak eta elkarkariak 6
- Aditz aldakorrek euskalkiaren arabera 6

##### 1.3. Aditz arazleak edo kausatiboak (-arazi, eragin) 6

#### 2. Adizki jokatugabeen azterketa 7

##### 2.1. Aditzoinaren azterketa 7

##### 2.2. Partizipioaren berri laburra 8

##### 2.3. Aditz izenaren azterketa 9

#### 3. Adizki jokatuak 11

##### 3.0. Adizki trinkoak vs perifrastikoak 11

##### 3.1. Adizki perifrastikoak 11

- 3.1.1. Aspektuaren azterketa 11
- 3.1.2. Denboraren azterketa 12
- 3.1.3. Moduaren azterketa 12
- 3.1.4. Pertsonaren azterketa 12

##### 3.2. Adizki trinkoak 14

- 3.2.1. Aspektuaren azterketa 14
- 3.2.2. Denboraren azterketa 14
- 3.2.3. Moduaren azterketa 14
- 3.2.4. Pertsonaren azterketa 15

# 1. Aditzen sailkapenak

## 1.1. Sailkapen formala

### a. aditz jokoan dauden elementuen arabera:

- (1) adizki *trinkoak* (edo *sintektikoak*): Amaia *doa*, Amaiak *daki*  
(aditza eta gramatika-markak batera)
- (2) adizki perifrastikoak: Amaia *joan da*, Amaiak *jakingo du*  
(aditz nagusia gehi aspektu marka bateko, aditz laguntzailea besteko)

### b. morfologiaren arabera: aditz bakunak eta elkartuak

*aditz bakunak* ("hitz bakarrekoak")

- (3) a. berezkoak: joan erosi, saldu, etorri, ...
- b. eratorriak: argaldu, gosaldu, euskaldundu, musukatu, leporatu, ..
- c. eman/eraman, ikasi/irakatsi, itzarri/iratzarri, etorri/eratorri....

*aditz elkartuak* ("hitz independente bik osatuak")

- (4) a. itxuraldatu, eraberritu, indargabetu, oldolustu, ...
- b. onetsi, gutxietsi, gaitzetsi, oniritzi, ...
- c. hitz egin, hots egin, negar egin, talka egin ...

● *Hitz egin* eta abarrekoen taldea ere ez da homogenea:

- (5) a. Ez du barbarik/berba egin                      b. Jonek ondo egiten du berba
- c. Ez du { \*alderik/alde } egin                      d. % Zeinek egin du alde ?
- (6) a. \*Jonek andregaia { ihes, berba, hitz, lo } egin du
- b. Jonek kolpea huts egin du (cf. Jonek bere dorretxea eraberritu du)

## 1.2. Kasu-marken (gramatika-kasuen) araberako sailkapena

Hartzen dituen **gramatika-kasuen** arabera:

(7)	Aditz motak	IS motak edo kasuak	laguntzaileak
	-----	-----	-----
	NOR aditzak	absolutibodunak	izan eta *edin
	NOR-NORI aditzak	absolutiboa + datiboa	izan eta *edin
	NOR-NORK aditzak	absolutiboa + ergatiboa	*edun eta *ezan
	NOR-NORI-NORK ad.	absolutiboa + datiboa + ergatiboa	*edun eta *ezan



3. Aditz batzuek NOR eta NORI eskatzen dituzte, hala ere:

(13) a. oparia tokatu/gustatu zaio b. eskiatzera joatea bururatu zaio

### • NOR-NORK saileko aditzak

Ezaugarriak:

1. IS edo argumentu (= partaide) bi dituzte: subjektua ergatiboan, osagarria absolutiboan.

2. \**edun* (edo \**ezan*) aditz laguntzailea hartzen dute:

(14) gure osabak erosi omen *du* etxea

3. Eguraldi aditz asko **NOR-NORK** sailekoak dira baina ergatiboa falta dute:

(15) a. euria dakar b. euria egin du c. eguna luzatu du

4. *Nor izuneko aditzak* absolutiborik ez duten NORK aditzak dira:

➔ inesiboa hartzen dutenak:

(16) a. Josten ikasi du. b. Badaki musean. c. lanean jardun du.

➔ Aditzondo balioa duen IS hartzen dutenak:

(17) a. Zenbait iraun du hitzaldiak ?  
b. hiru ordu iraun du hitzaldiak (\*iraun ditu)

(18) Hogeizentimoko balio du kiwi bakoitzak (... % balio ditu)

➔ inolako NOR edo absolutiborik ez dutenak: dimititu, eskiatu, jokatu, bazkaldu, afaldu, jardun, funtzionatu, iraun, distiratu, irakin:

(19) a. Ainhoak nahiko ondo eskiatzen du  
b. Bederatzietan afaltzen dugu geure etxean

Aditzok berez iragangaitzak dira, eta euren subjektuak egilearen rol semantikoa du sarri; nazioarteko terminologian *aditz ez-ergatiboak* esaten zaie iragangaitzak diren aditz aktiboei<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> *alde egin, negar egin, borrokan egin, dantza(n) egin, lan egin...* bezalakoek, benetakoa NOR absolutiborik ez daukaten neurrian, sail honetan sartzen dituzte hainbatek.

### ● NOR-NORI-NORK aditzak

1. N-N-N aditzetan datiboak aukerakoa den bigarren osagarria (normalean onuraduna/helburua) adierazten du:

(20) a. auto berria erosi dut. b. auto berria erosi dizut (zuri)

2. Arestian esan bezala, beste aditz batzuek datiboa eskatzen dute absolutiborik egon ez arren:

(21) a. lanari ekingo diogu b. eragiok, ..., aurreko danbolin horri.  
c. Telefonoz deituko dizut gauean d. Proposamenari eutsi dio alderdiak.

### 1.2.2. Sail aldaketak

#### ● Egitura inpertsonalak

1. NOR-NORK aditzak NOR saileko bihurtzen dira:

(22) a. dendariek sagarrak garesti saltzen dituzte b. sagarrak garesti saltzen dira

Zaila da egitura pertsonala 3.pertsonatik kanpo:

(23) ?? Beti zigortzen naiz ikastolan

2. NOR aditzak → NOR saileko inpertsonalak (forma trinkoetan ez)

(24) a. hemendik joaten da Eibarrera *baina* b. \* hemendik joan da Gasteiza  
c. \* hemendik doa Eibarrera (\* balio inpertsonalarekin)

Hortaz, NOR saileko inpertsonalak adiz perfikrastikoa behar du, eta orainaldian.

#### ● Inkoatibo vs kausatibo (arazle) alternantziak

1. Bakoitza zer den:

a. predikatu inkoatiboak egoera-aldaketa adierazten dutenak dira;

b. predikatu arazolek /kausatiboak dira egoera-aldaketa markatzen dutenak *eragilea* aipatuaz...

(25) a. ontzia bete/apurtu da (berezko aldaketa)  
b. ontzia bete/apurtu dute (nor bait aldaketaren eragile)

- (26) gorritu, zuritu, zimeldu, berotu, epeldu, harritu, beldurtu, txikitu, handitu, agertu, azaldu, desagertu, hil, ...

2. EGLAk iradokitzen duenaren arabera:

- (27) [nor, inkoatiboa] → [nor-nork arazlea]

### • Aditz bihurkariak eta elkarkariak

- (28) a. arriskuan ikusten dut neure burua / b. arriskuan ikusten naiz  
 (29) a. elkar ikusi dugu kalean / b. ikusi gara kalean

### • Aditz aldakorrak euskalkiaren arabera

- (30) a. Inflazioa(k) igo {da/du} b. Baloia(k) zelaitik irten {da/du}  
 (31) a. Berriketari jardun {da/du} b. Pelotari jokatu {ziren / zuten}  
 c. Goiz bazkaldu, afaldu {naiz/ dut}

### • NOR-NORK versus NORI-NORK

- (32) etxera deitu/lagundu {dizut/zaitut}  
 (33) Gurasoek berandu etxeratzen uzten {naute/didate}

## 1.3. aditz arazleak edo kausatiboak (-arazi, eragin)

Ezaugarriak:

1. *Arazi* aditzak edozein sailetako aditza bihur dezake arazle edo kausatiboa:

- (34) a. sartu, heldu (NOR) → sarrarazi, helarazi  
 b. ikusi (NOR-NORK) → ikusarazi  
 c. eman (NOR-NORI-NORK) → emanarazi

2. IS edo argumentu (= partaide bat) gehitzen du, eta jatorrizko subjektua datiboan azaltzen da eskuarki (NOR saileko aditzekin aukera biak sumatzen dira):

- (35) a. Mikel etxean sartu da → b. (guk) Mikel etxean sarrarazi dugu  
 b'. (guk) Mikeli etxean sarrarazi diogu  
 (36) a. amak umea ohean sartu du → b. (guk) amari umea etxean sarrarazi diogu



7. *arazi*-rekin:

(47) etorrarazi, helarazi, hurbilarazi

## 2.2. Partizipioaren berri laburra

- hizkera askotan aditzoinari egotzi dizkiogun erabilerak bereganatuko lituzke partizipioak.

- **Partizipioa mendeko perpausen ardatz**

1. perpaus erlatibo laburtuetan:

(49) goizean etorri emakumea

(50) a. goizean etorritako emakumea  
b. goizean etorriri(ka)ko emakumea

2. zenbait aditzen osagarri: nahi, behar, uste, gogo, ...

(51) a. Ikusi behar zaitut  
b. Ikusi nahi zaitut  
c. Ondo ikusi uste duenak...

3. Hainbat hitz edo atzizkiren osagarri:

(52) a. berriro ikusi arte  
b. zu ikusi gabe geratu nintzen  
c. hitz horiek {entzunik, entzunda} etxera joan nintzen  
d. zurekin hitz {eginez, eginaz} asko ikasi dut  
e. zurekin hitz egin {ondoan, ondoren, ostean, ...}

- **partizipioa hainbait esapidetan:**

(53) a. baietz/ezetz harri hau jaso!  
b. harekin hitz egin nahi nuen, baina errusieraz ez jakin nik...

- **Partizipioa eta adjektiboa**

1. Partizipioa adjektibo argia bihur daiteke, IS barruan:

(54) a. Ardi *galdua*  
b. hizkuntza *gutxituak* babesteko legedia onartu dute  
c. haur *ikasi* batek esan dit...  
d. emakume eta gizon *haziak* zarete zuek

2. Adjektiboa bezala, predikatu osagarria izan daiteke partizipioa:

(55) a. ama *hila* dut aspaldian (= nire ama hila da, hilda dago aspaldian)



- b. Partida *bukatutzat* jotzen dut.
- c. Artikulua {*idatzita, idatzia, idatzirik*} dago

● **Partizipioa eta izena**

1. Batzuetan partizipioa izen argia bihur daiteke:

- (56)
- a. Europako *itzuli* (handi)-a bost hilabetez egin zuen
  - b. Enpresak urteko *irabazi* gordinak handitu ditu
  - c. Gurdiak berak *urratu* batzuk bazituen.
  - d. *Begiratu* bat emaiozu artikulu honi.

2. Partizipioak *burutua* den perpaus nominalizatu bat sor dezake, kanpotik ISren ezaugarriak dituen, eta barnetik perpaus baten ezaugarriak dituen:

- (58)
- a. [Gabonetan anitz jana eta anitz edana] da honetara nakarrena
  - b. Pozten nau [zuek ekitaldi honetara etorri izanak].
  - c. Jonek anaiari [gurasoei dirua lapurtu izana] leporatzen dio

**2.3. aditz izenaren azterketa**

● **aditz izena:** edozein aditzek *-t(z)e* atzizkiak baliatuaz sortzen duen izen eratorriaz:

- (59) Jesus zerutik {jaistea, jaistek, jaisteari, jaistearekin, jaistean...}

● **Ezaugarriak:**

1. Barnetik perpaus baten itxura, eta IS osagarriak ergatibo-absolutibo-datiboan:

- (60) a. *Jonek Mireni deitzeak* harritu ninduen                      b. *Zuk belarra moztea* gauza ona da

nahiz eta Iparraldean TO-GEN egitura aukeran dagoen:

- (61) a. hurrek paper zikinak biltzea...                                      b. hurrek paper zikinen biltzea...

➔ Aditz izenaren gainerako modifikatzaileak perpausean bezalakoak dira:

- (62) Jon menditik lagunekin ibiltzea..

➔ Kanpotik IS baten itxura du nominalizazioak, artikulua eta deklinabide atzizkiak hartuz:

- (63) Jon menditik lagunekin {ibiltze-a, -ak, -ari, -arekin, -ra, -tik, ...}

2. Badira, hala ere, *t(z)e* atzizkiaren bidez eratorritako izen arruntak:

- (64) a. Jonen aurtengo *urtebetetzea* ospatu behar dugu  
 b. Ez dezagun gal gure arbasoen *sineste* sendoa (*sineste* = sinesmen)

● **aditz izena + artikulua + kasu markek/posposizioek erabila zabala dute:**

- (65) a. hura zurekin *ikusteak* harritu ninduen                      b. . *erretzea* debekatu digute  
 c. Baduzu hara *joaterik*?    d. Zeu *etortzea* nahi dut.  
 e. *Erretzeari* utzi diot    f. Euskaraz *jakitearen* garrantzia....  
 g. Hori *jakiteko* gogoarekin geratu naiz                                      h. Ingelesa *ikasteko*, bertara joatea duk  
 i. Amak ona *izateko* esan dit  
 j. mugara *hurbiltzearekin*, ikustekoak ziren jendeak  
 k. Erosketak {*egitera/egiten*} joan gara                                      l. Hori *jakitera*, han geldituko nintzen  
 m. zuei *laguntzearren, laguntzeagatik, ...*

● **aditz izena + n (aspektu marka gisa): etortze-n, ikuste-n**

1. jakintza aditzen osagarri: jakin, ahaztu, ikasi, ...

- (66) {Badaki, ahaztu zaio, ikasi du, irakatsi didate...} gitarra jotzen

2. hautemate aditzen osagarri: entzun, harrapatu, ikusi, ...

- (67) Jon gauero {entzuten, harrapatzen, ikusten, sumatzen, ipintzen} dugu gitarra jotzen

2. ekintzaren hasiera/luzapena adierazten duten aditzak (aspektualak): ari izan, ibili, egon, ohitu, jardun, hasi, bukatu, amaitu, ...

- (68) Gitarra jotzen {ari da, hasi da, jardun du, ohitu da, ibili da, ...}

3. utzi-lagundu:

- (69) a. Kafeak ez dit *lo egiten* {uzten/laguntzen}  
 b. Gobernuak ez du utzi behar auzia aintzina *mintzerat* eta *samintzerat*

4. saiatu, ausartu, ahalegindu, menturatu, aizu izan...

- (70) hiri barneri nortasun hiritarra {ematera, ematen} saiatzen gara



e. markarik gabeko adizkiak [-burutua] dira Goenagaren (1997) arabera; seguru asko [+gertakizun] ere badira:

(77) etor(-ø) {daiteke/ dadi }

• Oro har: zelako aspektu markak, halakoxe aditz laguntzaileak: *izan/ \*edun, \*edin/\*ezan, egin, \*iro, \*eradun, eutsi*

• Oharra *\*edun* aditzaz:

(78) a. Arazo bat dut                                      b. Arazoa konpondu *dut*  
 c. \*Arazo bat ***edun*** *dui*                                  d. Arazo bat {ukan, izan} *dut*

### 3.1.2. Denboraren azterketa

➔ Oinarrizko bereizketa: [± orainaldia, ± iraganaldia])

(79) a. da, du, dadi, deza: [+orainaldi,-iraganaldi]  
 b. zen, zuen, zedin, zezan: [-orainaldi, +iraganaldi]  
 c. -litz, -lu, -ledi,-leza: [-orainaldi, -iraganaldi] (➔ alegiazko formak)  
 d. (ez dago): [+orainaldi, +iraganaldi]

(80) atzo gaueko hamarretan sartu {zarete, zineten} herrian  
 a. sartu zarete: [+burutua, -geroaldia, +orainaldi, -iraganaldi]  
 b. sartu zineten: [+burutua, -geroaldia, -orainaldi, +iraganaldi]

### 3.1.3. Moduaren azterketa

➔ oinarrizko bereizketa: agiantasuna, [±ahalezkoa]

(81) a. da, zen, litz: [-ahalezkoa]  
 b. dateke, zatekeen, litzateke: [+ahalezkoa]  
 (82) a. dadi, zedin, ledi... [-ahalezkoa]  
 b. daiteke, zitekeen, liteke... [+ahalezkoa]

### 3.1.4. Pertsonaren azterketa

1. adizkien hasierako pertsona-markak:

(83) ni      N-  
 hi      H-  
 gu      G-

zu Z-  
 zuek Z- (honek pluralgilea ere eskatzen du)

➔ marka hauek **NOR IS absolutiboetarako** erabiltzen dira NOR, NOR-NORI eta NOR-NORK sailetako adizkietan:

- (84) a. n-aiz, n-intzen, n-atzaizu, n-aiteke, n-auzu, n-azakezu...  
 b. h-aiz, h-intzen, h-atzazit, haiteke, h-aute, h-azateke ...  
 c. g-ara, g-inen, , g-atzaizkio, g-aituzte, g-aitzakete...

baina baita NORK IS ergatiboetarako ere bi baldintza betez gero:

1. NOR = 3. pertsona; eta

2. orainaldiko adizkiak ez izatea:

- (85) a. n-uen, h-uen, g-enuen, z-enuen, z-enezake, ...  
 b. n-ion, n-iezaioke, h-ion, g-enion, z-eniezadakeen...

2. adizkien amaierako edo erdiko pertsona-markak:

- (86) ni -DA- edo -T-  
 hi -K(A)/N(A)-  
 gu -GU  
 zu -ZU  
 zuek -ZUe (e = pluralgilea , ez pertsona marka)

➔ pertsona-marka hauek **IS datibo eta ergatiboarekiko** komunztadura adierazteko erabiltzen dira, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkietan:

- (87) a. du-t, dio-t, zai-t, zitzai-da-n, di-da-te, ...  
 b. du-n/k, dio-k/nk, zai-k/n, zitzai-a/na-n, di-a/na-te...  
 c. du-gu, zai-gu, zitzai-gu-n, di-gute, zi-gu-ten...

3. Hirugarren pertsonak ez omen dauka markarik:<sup>3</sup>

- (88) d-ut .. baina n-uen (non da 3.ps marka?)  
 (89) a. d-a, z-en, l-itz, ...  
 b. d-it-u-t, d-i-zki-ot, deuts-a-da-z, ...

---

<sup>3</sup> Gehienez ere, datiboetan ageri den *-o* har liteke 3. pertsonaren markatzat; hala ere, singularra adierazten du soilik EGLAren arabera.

- Numeroa: pluralgileak, berez, numero-marka dira, ez pertsona-marka

(90)	a. -zki-	d-i-o-t / d-i-zki-o-t ; d-ieza-da-ke-zu/ d-ieza-zki-da-ke-zu zai-t/ zai-zki-t
	b. -it-	d-u-t / d-it-u-t ; n-a-u-zu/ g-a-it-u-zu

### 3.2. adizki trinkoak

#### 3.2.1. Aspektuaren azterketa

1. ageriko marka formalik ez (trinkoetan ez bezala)

2. Trinkoei buruz aspektu "puntukaria" dutela esan ohi da:

(91)	a. Jon dator	b. Jon zetorren	c. Jonek badaki
------	--------------	-----------------	-----------------

(92) trinkoen aspektu balioak: [-burutua, -gertakizun, +*puntukaria*]

#### 3.2.2. Denboraren azterketa

1. oinarrizko bereizketa: [±iraganaldi], [±orainaldi]:

(93)	a. dator: [+orainaldi,-iraganaldi]	
	b. zetorren: [-orainaldi, +iraganaldi]	
	c. letor: [-orainaldi, -iraganaldi]	(➔ alegiazko formak)
	d. (ez dago): [+orainaldi, +iraganaldi]	

#### 3.2.3. Moduaren azterketa

1. oinarrizko bereizketa: agiantasuna, [±ahalezkoa]

(94)	a. dator, dakizu, letor: [-ahalezkoa]
	b. datorke, dakikezu, letorke: [+ahalezkoa]

2. agiantasuna eta etorkizuna lotuta daude:

(95)	ez dakit nor datorren...	
	a. Ainhoa datorke	b. Ainhoa etorriko da (agian)
	c. Ainhoa etor daiteke	

### 3.2.4. Pertsonaren azterketa

1. adizkien hasierako pertsona-markak:

- (96) ni N-  
 hi H-  
 gu Z-  
 zu Z-  
 zuek Z- (honek pluralgilea ere eskatzen du: -te, -e)

➔ marka hauek **NOR IS absolutibo**etarako erabiltzen dira NOR, NOR-NORI eta NOR-NORK sailtako adizkietan:

- (97) a. n-ator, n-akarzu, n-inderamazun, n-entorren, ...  
 b. h-ator, hakarte, h-inderamaten, , ...  
 c. g-atoz, g-auzkate, , g-entozen, ...

➔ baina baita **NORK IS ergatibo**etarako ere bi baldintza betez gero:

- a. absolutiboa = 3. pertsona; eta  
 b. orainaldiko adizkiak ez izatea:

- (98) a. n-eraman, h-ekarren, g-eneraman, z-eneraman, z-eneramaten, ...  
 b. n-iotsun, n-eramakion, ...  
 c. g-enekien, g-enekarren, ...

2. adizkien amaierako edo erdiko pertsona-markak:

- (99) ni -DA- edo -T-  
 hi -K(A)/N(A)-  
 gu -GU  
 zu -ZU  
 zuek -ZUe (e = pluralgilea , ez pertsona marka)

➔ pertsona-marka hauek **IS datibo eta ergatibo**arekiko komunztadura adierazteko erabiltzen dira NOR-NORI, NOR-NORK, eta NOR-NORI-NORK sailtako adizkietan:

- (100) a. dauka-t, diotsu-t, zai-t, datorki-t, dakarki-da-te, ...  
 b. dauka-n/k, diots-a/na-t, datorki-k/n, dakarki-a/na-te...  
 c. dauka-gu, daki-gu, datorki-gu, dakarki-gu-zu, ...

d. dauka-zu, dakarki-zu-t, datorki-zu, dagoki-zu, ...

3. Hirugarren pertsonak ez omen dauka markarik:

(101) d-aukat .. baina neukan (non da 3.ps marka?)

(102) a. d-akit, z-ekien, l-eki, ...

b. daki-zki-t, zeki-zki-en, leki-zki, ...

➔ bitxia da oso: denboraren araberako pertsona-marken aldaketa:

(103) mendebaleko euskaran: eban, ekian, etorran, ...

• Numeroa: pluralgileak = numero-marka dira, ez pertsona-marka:

(104)	a. -zki-	dakit /daki-zki-t	
	b. -z-	doa / doaz	noa/ goa-z
	c. -tza-	dabil/dabiltza	nabil/ gabil-tza
	d. -it-	dut/ditut	nauzu/ga-it-uzu
	e. -e-	dio/die	zagoz / zagoz-e
	f. -te	dauka/daukate	zaude/ zaude-te
	g. -de	dago/daude (<*dagode)	